

URRETXU ETA ZUMARRAGAN ARNASTEN DUGUN AIREA KALITATEZKOA AL DA?

·Elkarrizketa: Lilibasoko gazte marokoarrak ·Zuek bai jakin!: Jose Antonio Murua

·Izerdi patsetan: Xabier Goñi ·Boteprontoan: Jorge Andueza 'Pitu'

Herri Aldizkaria Otamotz


2010eko

otsaila

154. alea



altia



IKER

Ipeñarieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI



FAGOR

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Urretxun eta Zumarragan arnasten dugun airearen kalitatea
- 10 Erreportajea**
Lilibason bizi diren gazte marokoarren etxean
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Herriko airea kalitatezkoa dela uste al duzu?
Gaiak kezkatzen al zaitu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Iñaki Lizarralde
- 18 Zuek bai jakin!**
Jose Antonio Murua
- 23 Argazki zaharra**
- 26 Izerdi patsetan**
Xabier Goñi, behar baino lehenago joan zen pilotaria
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Jorge Andueza 'Pitu'




Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Urretxu eta Zumarragako airea kalitatezkoa al da?

Zumarraga eta Urretxun arnasten den airearen kalitatea beti izan da kezka iturri, hamarkada luzeetan industria izan baita ekonomiaren ardatza. Garai batean legedia oso malgua zen. Herritar batzuentzat lanpostuak airearen kalitatea baino garrantzitsuagoak ziren eta besteek bazekiten ez zutela enpresen aurka ezer egiterik. Egun, ordea, legedia zorrotzagoa da eta Eusko Jaurlaritzak airearen kalitatea neurtzen du. Hiru urte bete dira Zumarragan neurgailua jarri zenetik eta gaia gertutik jarraitu duen Xabier Barriola ezker abertzaleko kidearekin eta Mikel Serrano alkatearekin hitz egin dugu.

Lantegi bateko tximinia bat.
Argazkia: Gotzon Aranburu.



Xabier Barriola: “Jende guztiari bere herria kutsatuena dela iruditzen zaio, baina Zumarragako datuak kezkarriak dira”

Xabier Barriolak urteak daramatza neurgailuak ematen dituen datuak aztertzen eta Zumarragako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren jarrerarekin kexu ageri da. Bere ustez, ez dituzte airearen kalitatea hobetzeko hartu beharreko neurriak hartzen.

Zer egin du Zumarragako udalak orain arte arazo honi aurre egiteko?

Ezer ere ez. Euren burua zuritzen saiatu dira, besterik ez. 2007an, gure lehen agerrialdiaren aurretik, kasualitatea, Eusko Jaurlaritzako teknikari bat ekarri zuten. Horren aurretik *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak Zumarraga lehenengoz kalitate txarreko airea duten herrien taldean sartu zela aipatu zuen. Horrela esanda kasualitatea dela dirudi, baina ordura arte ez zen airearen kalitatea neurtu! Aurreko udalbatzek ere ez dute ezer egin, kutsadura gehien duen herrietako bat izan arren, bederatzi urte kostatu baitzaio Zumarragari airearen kalitatea neurtzen duten udalerrien sarean sartzea. Udalak delegatu egiten du, ardura Eusko Jaurlaritzarena dela esaten du, baina ez digu balio. Jaurlaritzaren aurrean akuilu lana egin beharko luke eta herritarrei informazioa eskaini.

Nolatan sartu zen Zumarraga airearen kalitatea neurtzen duen udalerrien sarean?

Jaurlaritzaren ekimenez. Nire ustez urteetan Udala eta herritar asko lantegia itxiko zen beldur izan dira. Minbiziak jota hil direnen senitartekoei, berriz, ez zaie gaizki irudituko gai hau lantzea.

Osasuna eta ekonomia artekoren arteko kontu bat bada, egungo joera osasunari eta bizi kalitateari lehentasuna ematea da. Dena den, Arcelor-Mittaleko kudeatzaileak bilera batean zera esan zuen: Zumarragako planta ixten bazen ez zela ingurumen gastuengatik izango. Beraz, osasuna eta ekonomia ez daude kontra-

“Zumarragako Udalak Jaurlaritzaren aurrean akuilu lana egin beharko luke eta herritarrei informazioa eskaini”

jarriak. Europako joera enpresek euren jarduerak ingurumenean duen kostearen ardura hartzea da. Arcelor-Mittalek ere ingurumen plana egin nahi du. Horrek kostea du: legea errespetatzen ez baduzu isuna jartzen dute, adibidez. Baina, noski, jarduera kontrolatuko duen jendea behar da.

Mota honetako kutsadurak minbiziak eragin dituela aipatzen da, baina inor ez da datu zehatzak ematera ausartzen.

Taxi gidari batek deitu zidan eta kezkatuta zegoela esan zidan. Jende asko eramaten du Donostiara minbiziaren aurkako tratamendua hartzera eta nahiko arrunta da medikuek Zumarragan horrenbeste minbizi kasu zergatik dau-

den galdetzea. Kontu hori argitu beharko litzateke, hemengo datuak ondoko herrietakoekin konparatuz. Gu hori egiten ari gara neurgailuak ematen dituen datuekin. Jende guztiari bere herria kutsatuena dela iruditzen zaio, baina Zumarragako datuak kezkarriak dira. Gainera, Arcelor-Mittalek xurgagailu berria duen arren, azken urtebetean ez da hobekuntzarik egon. Ez dakit zer gertatzen den: neurketak gaizki egin diren, xurgagailua martxan jartzen ote den... Datu txarrak izan diren herrietan plangintzak jarri dira martxan. Azpeitian hori egin zen eta orain datu hobekak ematen ari dira. Zumarragan 2007an datu txarrak izan ziren, baina plana abian jarri aurretik 2008ko datuak kaleratu ziren eta, hauek hobekak zirenez, asmoa bertan behera gelditu zen. Baina “Factor de corrección” delakoa kontuan izan beharko litzateke.

Zer da hori?

Lehen urtean neurgailuaren emaitzak bider 1,2 egin behar da, “por defecto”. Ondoren azterketa bat egin zen eta bider 0,68 egin behar zela zehaztu zen. Halako aldakortasuna duen makina ezin da ondo egon. 2008ko datu onak bider 0,68 eginez ateratu ziren. Baina gero makina konpontera eramaten zuten eta ordutik beste bat dago. 2009ko datuak txarrak izango direla uste dugu.

Arcelor-Mittal enpresarekin harremanik izan al duzue?

Ez. Gainera, guk ez dugu erruduna enpresa dela esan e! Espedientea

Jaurlaritzak ireki zion eta datuek foku nagusia enpresa dela adierazten dute.

Noiz hasi zineten kontu hau lantzen?

Ezker abertzaleak beti izan du gai honekiko sentsibilitatea. Azkeneko hauteskundeen ondoren, bileretan neurgailuaren datuak Interneten azaltzen zirela jakin nuen eta sartu egin nintzen. Berehala konturatu nintzen datuak oso arraroak zirela. Nire ustez, gai honi denbora pixka bat eskaintzea merezi du. Jaurlaritzako jendearengan konfiantza izan beharko nuke, nirekin ondo portatu baitira, baina datu batzuk kezkarriak dira. Badakigu PM10 neurriko zenbat partikula dauden, baina ez dakigu zerez osatuta dauden. Eta Arcelor-Mittal 2009an berunarekin lan egiten hasi da berriro... 2007ko irailean Eusko Jaurlaritzak, Arcelor-Mittalek eta bi udalek bilera izan zuten Urretxun eta bi azterketa egitea onartu zen: bata PM10 partikulak zerez osatuta dauden jakiteko eta bestea osasunean izan dezaketten eraginari buruzkoa. Guretzat bi azterketa hauek funtsezkoak dira.

Egin al dira?

Erabaki hori hartu eta denbora luzera Zumarragako udaletxean galdetu nuen behin baino gehiagotan eta ez zekitela ezer esan zidaten. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro sailera deitu eta Osasun sailera deitzeko esan zidaten. Horrela eduki ninduten batetik bestera bizpahiru alditan ezer lortu gabe. Estudioak egin da daude, baina beraiengatik galdetu dugu eta ez dira agertzen. Ingurumen legearen arabera, gai honetan gardenak izatera behartuta daude. Txostenak publiko egin behar dira. Datuak positiboak izango balira, ziur txaranga eta guzti

aterako liratekeela berri ematera... Ezer esaten ez badute, datuak txarrak direla pentsatzen dut.

...

Legeak metro kubikoko 50 miligramo PM10 baino gehiago egotea arriskutsutzat hartzen du eta urtean 35 aldiz bakarrik uzten du eguneko batezbestekoa altuagoa izaten. Baina Arcelor-Mittalek gauzez lan egiten du gehienbat eta horrek desoreka handia dakar. Izan ere, ordu askotan 200 miligramo PM10 inguru dago airean eta hala ere egun

“Eusko Jaurlaritzako teknikariek, Zumarragan egon zirenean, leihoak ixtea gomendatu zuten.

Zer da hori?”

horretan ez da legeak ezarritako muga gainditzen. Media ona izan daiteke, baina zortzi orduan horrenbeste PM10 arnastea osasunarentzat txarra da. Gainera, 138 miligramotik gora egoera arrisku-tsua da. Eusko Jaurlaritzako teknikariek, Zumarragan egon zirenean, leihoak ixtea gomendatu zuten. Zer da hori? Nire ustez datu kezkarria da eta zer edo zer egin beharko litzateke.

Zer esango zenieke Arcelor-Mittal enpresakoei?

Aspirazioa badabilen edo ez jakin nahiko nuke. Zenbat eta xurgatzaile indartsuagoa jarri, orduan eta garestiagoa da galdaketa egitea. Ez al da merkeagoa

xurgatzailea itzaltzea? Eusko Jaurlaritzako teknikariak enpresa barruan egon dira, baina inoiz ez dute publiko egin ikusi dutena. Enpresak barruan dituen neurgailuen kontrol zorrotzagoa egin beharko litzateke.

Gai honetaz Zumarragako udaletxean bakarrik hitz egiten da, baina urretxuarrek aire bera arnasten dute. Urretxuko ezker abertzaleak ez al du gaia landu?

Beraiek inplikatzeko saiatu gara. Egia da gehiago egin zezaketela, baina lehen legealdia dutela kontuan izanda, nahikoa egin dute: Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri dira eta Urretxun ere neurgailua jartzea komeni ote den galdetu dute. Horrez gain, Ingurumen teknikaria kontratatu dute.

Zuei dagokionez, zeintzuk izango dira hurrengo pausoak?

Une garrantzitsu batean gaude: hiru urteko perspektiba dugu dagoeneko. Ez da joera argi bat azaltzen, baina gai garrantzitsua da. Herritarren osasunaz hitz egiten ari gara. Lanean jarraituko dugu. Herritarren artean kezka dago eta jendea galdezka etorri zaigu. Gure egoera zein den ikusita, ez dago alderdikeriaz jokatzeko ari garela esaterik. Udalak baloiak kanpora ez botatzea eta kezka azaltzea gustatuko litzaziguke. Baita gaia zabaltzea ere. Gu izan gara landu dugun lehenak, baina gainontzeko alderdiek, sindikatuek eta ekologistek ere Udalari bere kezka azaltzea gustatuko litzaziguke. Kezka badago eta aurrean hori bideratzen saiatuko gara. Guztiok elkartzeko nahi dugu: jendeak, mugitu den bakoitzean, Udala mugitzea lortu du.

Mikel Serrano: “Neurketen emaitzak momentuan jasotzen dira: kutsadura asko igoko balitz, berehala Ertzaintzari deituko litzaioke”

Mikel Serrano Zumarragako alkateak neurgailuak azken urteotan eman dituen datuak onak direla eta Udalak gaia gertutik jarraitzen duela aipatu du. Urretxuko Udalean gai honek zergatik ez duen oihartzuna galdetzen dio ezker abertzaleari.

Zer diozu neurgailuaz?

Neurgailua kutsadura iturritik gertu jarri zen. Denok dakigu Arcelor-Mittal dela kon-

“Urola Garaian

metal pisutsu

gutxiago dago airean

Goierri eta

Urola Erdian baino”

tuan hartu beharreko guneetako bat, baina neurgailuaren kokapena hautatzeko orduan GI-632 errepidearen gertutasuna ere kontuan hartuko zuten. Gipuzkoako kutsadura foku nagusia N-1 errepidea dela kontuan izan behar da. Neurketen emaitzak momentuan jasotzen dira eta horrek lasaitasuna ematen du: une batean kutsadura asko igoko balitz, berehala Ertzaintzari deituko litzaioke.

Orain arte ikusitakoaren arabera, zer diozu airearen kalitateari buruz?

Pixkanaka hobetzen doala. Joera hori da. Ospitalean INMA (Infancia y Medio Ambiente) egitasmoa abian dute eta aire-

Airearen osagaiak aztertzen dituen aparailua.



an dauden partikulek haurdun dauden emakumeengan duten eragina neurtzen da. Datuek hobera egin dute. Bestalde, konparaketak egin dira: Urola Garaian metal pisutsu gutxiago dago airean Goierri eta Urola Erdian baino. Kontuan izan behar da, adibidez, Arcelor-Mittalek inbertsio handia egin zuela.

Ezker abertzaleak, ordea, datuak txarrak direla dio.

Azken urtebete honetan apenas esan dute ezer. Datuek hobera egin dutelako dela pentsatu nahi dut. Dena den, alarma soziala sortu aurretik, faktore guztiak kontuan izan behar dira: esan bezala, egun datuak berehala jasotzen dira eta hala egoera berehala konpontzen da. Oso ondo iruditzen zait ezker abertzalea kezkatuta agertzea, baina Zumarraga eta Urretxuk kasko bakarra osatzen dute eta kutsadura Zumarragan bakarrik ematen dela dirudi. Aldameneko herrian ez dira horren kritiko agertzen. Hori esanguratsua da. Foku nagusia Arcelor-Mittal da, baina Kaminpe Urretxun dago. Erantzukizuna eskatzeko orduan serioak izan behar dugu. Horrekin ez diot nire erantzukizunari muzin egin nahi.

Zer jarraipen eskaintzen dio Zumarragako Udalak gai honi?

Ingurumen teknikaria dugu eta Hirigintzako teknikariek ere datuen jarraipena egiten dute Internet bidez. Zer edo zer gertatzen bada, eurak dira horren berri ematearen ardura dutenak. Bestalde, arazoak sortzen direnean eta erabakiak hartu behar direnean Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzen gara. Enpresarekin ere harreman estua dugu. Xurgatzailea gelditu behar izan dutenetan abisatu egin izan gaituzte.



GI-632 errepidea astelehen goiz batean.

Gainera, Udaleko batzordeetan neurri guztien berri ematen da. Dena den, ez da ahaztu behar konpetentzia Jaurlaritzarena dela.

“Zumarraga eta Urretxuk kasko bakarra osatzen dute eta kutsadura Zumarragan bakarrik ematen dela dirudi”

Ezker abertzalearen ustez 2008ko datuak ez dira fidagarriak. Garai hartan zegoen neurgailua ez zebilela ondo uste dute, “factor de corrección” delakoa zein zen eta aldatu egin zela ikusirik.

Kritika ondo iruditzen zait, baina serioak izan behar dugu. Aparailua Eusko Jaurlaritzako teknikariek esandako

tokian jarri da eta neurgailuaren parametroak legearen barne daude. Eusko Jaurlaritzaren lana zalantzan jartzen da eta erantzukizuna Zumarragako Udalari bakarrik leporatzen zaio. Urretxuko Udalaren aurrean jarrera bera agertzea gustatuko litzaidake.

Ba al dakigu PM10 partikulak zerez osatuta dauden?

Lehen Arcelor-Mittal barruko bideak asfaltatu gabe zeuden eta kamioiek hautsa harrotzen zuten. Horrek ere datu txarrak eragiten zituen. Jaurlaritzako teknikariek partikulen osagaiak zeintzuk diren badakite eta badakite zer egiten duten. Arriskutsuak balira jakinaraziko ligukete.

Arcelor-Mittalen jarduera behar bezain gertutik jarraitzen al da? Hartu beharreko neurriak hartu al dira gehiegi kutsatu duenean?

Ni alkate naizenetik ez da alarma sortzeko moduko kutsadurarik egon, beharbada ekoizpena jaitsi delako. Aurreko alkateek egin beharrekoa egin dutela uste dut.

Zuen iritzia ezagutu nahi dugu

Otamotzeko irakurleek eta otamotz.com-eko bisitariak gure hedabideaz duten iritzia ezagutzeko azterketa martxan jarri behar dugu. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren dirulaguntzarekin egingo dugu eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko kide diren beste hainbat hedabiderekin batera bideratu dugu.

Hilabete honetako alean galdetegi bat aurkituko duzue eta horrekin hasiko dugu azterketa. Galdetegia bete eta inongo kosturik gabe gure egoitzara bidali besterik ez duzue egin behar. Horrez gain, inori Internet bidez osatzea erosoago egingo balitzaio, otamotz.com-en ere egongo da aukera galdetegiari erantzuteko. Azterketa Aztiker enpresaren aholkulari-tzarekin eramango dugu aurrera eta hiru helburu nagusi ditu:

1.- Aldizkariaren irakurleak ezagutzea:

Aldizkariaren eta atariaren irakurleak ezagutu nahi ditugu, horrek Otamotzen posizionamendua egokitzen lagunduko digulakoan. Besteak beste, honako xehetasun hauek ezagutu nahi ditugu:

- Irakurle kopurua, aldizkariaren eraginaren neurria emango diguna.
- Irakurleen segmentazioa, gutxienez ondoko irizpide hauen arabera:
 - Adin tartea
 - Generoa
 - Euskara maila

2.- Irakurleak aldizkariaren duten iritzia ezagutzea:

Aldizkariaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren ez ezik, zer nolako balorazioa egiten duten ere jakin nahi dugu: balio erantsirik aitortzen dituzten eta non aurkitzen duten balio erantsi hori. Besteak beste, honakoak jakin nahi ditugu:

- Zer informazioaren bila jotzen duten gure aldizkariara
- Bilatzen duten hori aurkitzen duten ala ez
- Zerbait faltan edo soberan sumatzen duten

3.- Aldizkaria, ataria eta hedabideen mapa hobetzeko gakoak jasotzea:

Informazio hori guztia aztertuta, aspalditik denon burutan dabilen zenbait galderari erantzuteko moduan egongo gara:

- Zer eragin dute benetan Otamotz eta otamotz.com-ek euskararen erabileran?
- Egiten dugun ahaleginaren parekoa ote da herritarrengandik duten harrera?
- Zer egin dezakegu harrera eta eraginkortasun hori hobetzeko?
- Zein bide hartu behar dugu?

Azterketaren faseak honakoak izango dira:

Lehen fasea: Posta eta Internet bidezko inkesta (Otsailaren amaiera-martxoak 15)

- Posta eta Internet bidezko inkesta egitea
- Posta bidezko inkestaren emaitzen azterketa.

-Hilabete honetako alean eta otamotz.com-en duzue galdetegi

Bigarren fasea: Telefonozko inkesta (Martxoak 15-Maiatzak 15)

Hona hemen egin asmo dugun ikerketaren xehetasun tekniko nagusiak:

- Ikerketaren unibertsoa Zumarraga eta Urretxun bizi diren 15 urtetik gorako 14.511 herritarrek osatuko dute (2008ko erroldako datuak, iturria: INE).

-Lagina: 900 elkarrizketa egingo ditugu telefonoz, galdera-sorta egituratua erabilita.

-Urretxun, 359

-Zumarragan, 541

Hirugarren fasea: txostena eta ondorioak landu (Maiatzak 16-Ekainak 30)

Azken ondorioak jaso eta emaitzak gizarteratuko ditugu. Uztailaren hasieran egingo dugu ondorioen komunikazio-lana.

Lilibason bizi diren gazte marokoarren etxean

Urretxuko Lilibaso kalean Foru Aldundiaren babesean bizi diren adin txikiko etorkinek bizilagunei euren etxeko atek ireki zizkieten urtarrilaren 29an. Iñaki Zabala alkatea eta Maria Angeles Ostiza Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua bertan izan ziren, besteak beste. Gazteekin hitz egin zuten, etorkinek euren bizitzari buruz egindako muralak ikusi zituzten eta adin txikikoek egindako merienda dastatu zuten.



Hogar Alambique delakoa 2008ko urrian ireki zen, nahiz eta Lilibasoko bizilagun batzuk adin txikiko etorkinentzako zentroaren aurka azaldu ziren. Dena den, ez da inongo arazorik izan batzuen eta besteen artean.

Harrera etxe honetan hezitzaileek hemen familiarik ez duten adin txikiko etorkinekin lan egiten dute. Bertako guztiak gizonezko marokotik dira eta gehienak Tanger ingurukoak dira.

Zentroko arduraduna Ana Garcia cadiztarra da. Azaldu duenez, gazteak ez dira zuzenean Marokotik Urretxukoa bezalako etxeetara etortzen. "Heltzen direnean larrialdiko harrera etxeetara bidaltzen dira. Bertan hilabete bat edo bi pasatzen dituzte eta bertako dinamikara egokitzen badira gurea bezalakoe-



Gazteek euren bizitzari buruzko erakusketa prestatu zuten.

tara pasatzen dira. Egokitzen ez badira, berriz, zentro terapeutikoetara edo Debakoa bezalako zentro espezializatueta joaten dira”.

Ana Garcia:

“Lanbideak ikasten ari

dira eta eskolatik

kanpoko ekimenenetan

ere parte hartzen dute”

Urretxun ohiko bizimodua eskaintzen zaie: euren adineko gainontzeko euskal herritarrek duten modukoa. “Guztiak lanbideak ikasten ari dira Lanbide Hastapenetarako Ikastegietan eta eskolatik kanpoko ekimenetan ere parte

hartzen dute. Hala, batzuk Hernaniko futbol taldean jokatzen dute: astebitan bertara joaten dira entrenatzera eta asteburuetan partidak jokatzen dituzte. Beste batzuk gaztelera eskolera joaten dira, beste bat Helduen Eskolan hasi behar da... Larunbatak libre izaten dituzte eta igandeetan etxetik kanpora bazkaltzen dugu, mendira

edo zinemara joaten gara...”, aipatu du. Honen guztiaren helburua gazteak autonomoak izateko prestatzea da. “Adin-nagusitasunera heltzen direnean gure zentroa uzten dutenez, burujabetza lortzea helburu duten tailerrak ere eskaintzen dizkiegu: trebetasun soziala, lanpostua nola bilatu, sexualitatea, kontsumoa...”.

Urretxuko etxetik gizarteratze edo emantzipazio etxebizitzetara joaten dira. “Pisu hauek subentzionatuta daude. Helburua gizartean integratu eta posizio sozial jakin bat lortu bitartean laguntzea da, baina ez daude behar adina etxebizitza. Hori dela eta, batzuetan gurea bezalako etxeetatik kale gorrira pasatzen dira”, aitortu du.

Urretxuko zentroak hamar lagunentzako tokia du. Egun zortzi marokoar bizi dira bertan. Hiru hezitzailek eta hainbat laguntzaile dituzte. Garciak herritar askok ez duela euren berri uste du. “Ez ziguten harrera oso ona egin, baina ez dugu arazorik eman eta oharkabean pasatu gara. Horregatik erabaki dugu, hain zuzen ere, geure burua ezagutaraztea”, amaitu du.

Marokoarrek merienda prestatu zuten bisitariarentzat.






egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Martxoan bertsoak, edo antzeko zerbait...



Martxoa ere iritsi zaigu
bertsoetarako grina
oholtzarako potrorik ez eta
hauxe gure ahalegina.
Gorka ta Gorkai omenaldia
nahi genieke duina
Gure modura izango da ba,
egurra emanaz jakina.
Txapelketari gure kritika
egingo diogu fina
profesionalen gotorlekua
gu paketeon ezina
parte hartzailen maila igo da
baina galdu du feeligna.
zuzentasunak hartu du gaina
purista denen dotrina.

Doinua: Lujanbioren azken agur-
rrekoa

Tot el BEC,
MB
som la gent del verso,
tan se val d'on venim,
si del sud o del nord (baita
Legazpitik ere!)
ara estem d'acord estem
d'acord
hagitz profesionalak gara
Egaña al vent,
usu ozen,
Mendiluze hirek egin dik,
Azka, Azka, Aaaaazka

Doinua: *Tot el camp*

Ruper edo Sabinan
gure bertsoia
urtero liatzen du
Alkorta gajoa
bonbin eta gitarraz
jantzita badoa
harrikarez du uzten
Kuko tranpaldoa
Espero dugu dena
gaizki ez hartzea
hala izan behar duk
probokatzaillea
arrazoia duk Ojan
goitikan behera
Silveira bezalako
pikoi batzuk gera

Doinua: *Zenbait bertso xelebrea*
(Ruper Ordorikarena)

Herriko airearen kalitatea ona dela uste al duzu?

Gai honek kezkatzen al zaitu?



argazkia: Gotzon Aranburu.

Javier Andueza




41 urtez lan egin nuen fundizioan: Madayan eta Orbegozon. Duela urtebete arte ondo nengoen eta mendian zaldien pare ibiltzen nintzen, baina egun arnasketa arazoak ditut. Badakit neurgailuak jarrita daudela. Nik ez dut airea kutsatuta dagoenik nabaritzen.

Ofelia Méndez



Badakit neurriak hartzen ari direla eta neurgailu bat dagoela. Orbegozo aldera joanda nabari da han airea kutsatuta dagoela. Hori dela eta, gaia kontuan hartu beharko litzatekeela uste dut.

Eduardo Tobalina



Ez nekien neurgailua jarrita dagoenik, baina gai hau kontuan hartzeko modukoa dela uste dut. Arnasten dugun airea zaindu beharko litzatekeela uste dut. Ingurumenak kezkatzen nau. Izan ere, Friasekoa naiz: Garoñako zentrala ondoan dugu. Ez naiz sekula hura ikustera joan, ezta beharrik ere. Lehenbailehen itxiko balute hobe.

Janet Manso



Airearen kalitatea zaindu beharko genuke. Nire ustez arnasteko moduko airea dugu, baina hobea izan daiteke. Hori dela eta, neurgailua jarri izana ondo iruditzen zait.

Gaia: Zu, ni eta zinema

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Iñigo Legorburu



Bizitzen ari garen maitasun istorio hau tarteko, azken aldian "eskenak" dira errutinaren ordezeko. Askotan nola sentitzen naizen pertsonai baten antzeko uler nazazun hobeto saiatu nahi nuke lepo. (bis) Hortaz, laztana, fotogramarik ez dut barruan gordeko hiru puntako triangelua bertsoan borobiltzeko. (bis)

"Bi mila eta bat odisea" egin zuen haren pare, maitea zara izugarritzko ausardia baten jabe. Baina aukeran nahiago zaitut herabeetan herabe hitz goxoenen mirabe nire magalean bare. (bis) Zuri eskerrak abentura hau ateratzen zait debalde, izarrak uki ditzaket eta lurretik mugitu gabe. (bis)

Nerabezaro garaietako marrazki zaharren kontura, "Piztia eta Ederra" filmak sortu ohi zidan lilura, neska xarmant hark munstroarekin bizi zuen amets hura hedatu zedin mundura jarduten nintzen gustura. (bis) Sentimenduei dagokienez metamorfosi modura zure laguntzaz piztia zena goitik behera edertu da. (bis)

iritziz iritzi


Josune Zarandona



Ama izatearen mirariak

30 urte betetzeko bueltan aurkitzen naizen honetan, badirudi erloju biologikoa ate joka hasi zaidala. Inoiz iritsiko ez zitzaidala uste nuen arren, badirudi amatasun sena poliki-poliki pizten hasi zaidala (inor ez dadila asaldatu, poliki-poliki esan dut eta!). Eta honek, emakume gehienei uneren batean gertatuko zitzaien bezala, zer pentsatua eman dit, noski. Emakumea ama izateko jaiotze eta hezten ziren garaiak ez dira hain urrunekoak. Ezkondu eta familia bat eratzea ziren emakume batek emakume sentitu eta pertsona bezala betetzeko egin beharrekoak. Garaiak aldatu egin dira zentzu handi batean behintzat, eta eskerrak! Gaur egun amatasuna beste modu batean ulertzen eta bizitzen dugu emakumeok. Ama izateko beharra eta

amatasun senaz hitz egiten jarraitzen dugu, baina gaur egungo emakumeok beste zenbait rol ere bete behar ditugu pertsona bezala beteta sentitzeko. Emakumeak gizartean betetzen duen papera zein den ikusita, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula haur bat mundura ekarri eta hezte. Egia da gizonezkoek aitatasuna eta bikote harremanak bizitzeko moduak ere aldatu dituztela, baina amak, ama izaten jarraitzen du eta etxean ere. Berriki argitaratu den estatistika datu baten arabera, emakumeak dira, kanpoan lan eginda ere, lanen pisu handiena bere gain hartzen dutenak. Ba hori, emakumeek eta gizonezkoek gizartean bete beharreko rola aldatuz doazela, baina poliki-poliki, nire amatasun sena bezala.



1984

George Orwell

1949an George Orwellek (Eric Arthur Blair-ek) idatzitako eleberrri futurista da *1984*. Futurista izateaz gain, nobela iragarlea dela ukazina da. Izan ere, bada antzekotasunik Winston Smith protagonista eta Julia elkartuko dituen gizartearen eta egungoaren artean. Ez horren famatu egin den *Big brother reality* arengatik, kontakizuna gertatzen den gizartea kontrolean, manipulazioan eta lagun-hurkoarenganako beldurrean oinarri-

tua dagoelako baizik. Hizkuntza bakarreko, pentsaera bakarreko eta alderdi bakarreko mundua da autoreak aurreikusitakoa; hiru ardatz nagusik uztartzen dutena: gerra da bakea, askatasuna da esklabotza eta ezjakintasuna da indarra. Baldin eta irtenbiderik badu gizarte horrek, Orwellen hitzetan proletarioen artean (gizaki ez direnen artean) izango du. Atera kontuak, beraz.

Xabi Lasa


Norman

Norman

Beldurraren beldurrez, Alfred Hitchcocken *Psycho* maisulanak dar-dar batean jartzen zituen ikusle orenen hortzak. Norman Bates moteleko morroi gaztea hain zen... Hainbesteko indarra zuen pertsonaia hark, Normani zor diotela taldearen izena. Baina Eibarko Legarreko lokaletatik ateratako Norman honek ez zaitu izutuko eta hortzek ez dizute dar-dar egingo. Horiek estutzeko, burua mugitzeko eta ukabilak ixteko gogoia

edukiko duzu: musika aparatuari bolumena igotzeko nahia. Rock and Roll gordina dute abiapuntu, eta nortasun handiko hitzak zein ahotsa makulu. Lotsagabeak, zuzenekoak, izerdiari izerdia eransten diote eta aurreiritzirik gabekoa da euren musika. Funk ukituak entzun daitezke nabarmen kanta bizi horietan, pasarte psikodeliko iradokitzaileak eta jarrera hardcore bortitza.

Igor Susaeta



Departures

Yojiro Takita

Oscar saria eta Montrealgo jaialdiko sari nagusia irabazi ditu Yojiro Takita zinema zuzendariaren filmak. Heriotza eta haren inguruko erritualak abiapuntu hartuta, bizitzaren zentzuaz eta maitasunaz ari den drama musikala da. Langabezian gelditu den Daigo Kobayashi biolontxelo jotzailea da protagonista nagusia. Emaztea eta bera amaren jaioterrira joango dira euren bizitzari beste bultzada bat emateko. Daigok lan


berri bezain berezia lortzen du, hilotzak prestatu eta atontzea. Protagonistak lan bitxi honi esker emango dio bere bizitzari nola-baiteko zentzua eta bere buruarekiko sentitzen zuen ezinegona baretzea lortuko du. Filmaren ezaugarri nabarmenetako bat barrea eta hunkidura naturaltasunez uztartzen dituela da. Gainera, umore beltzeko ikutu batzuk ere baditu.

ButaK 21 zineklub taldea



Urbasa.


Iñaki Lizarralde.



Jose Antonio Murua: herritarren hanken zaintzailea

Jose Antonio Murua urretxuarrak 25 urte daramatza dagoeneko herritarren zapatak konpontzen. Horregatik ez ezik, Athletic futbol taldearen zale amorratua, txirrindularitza zaletua eta sukaldari bikaina delako ere bada ezaguna. Bestalde, urretxuar peto-petoa da eta herrian antolatzen diren festetan ez du sekula kale egiten.

Jose Antonio Murua, bere dendan



Zer diozu zure gurasoez?

Ama bizkaitarra zen, Zaldibarkoa. Aita, berriz, Urretxukoa: Larreagakoa. Ama Athletic zale petoa zen eta, bere eraginez, etxeko guztiak ere bai. Izan ere, aita ez zen futbol zalea. Reala Liga irabazi zutenean sartu zen etxera: Kutxak bandejak oparitu zituen.

Nolatan zen horren Athletic zalea zuen ama?

Bilbon lan egin zuen, Ingalaterrako kontsulatuan, eta haiek San Mamesera eramaten zuten. Hala zaletu zen. Athleticek final bat jokatu behar zuen bakoitzean San Antoniori kandelak jartzen zizkion.

Ama bizkaitarra eta aita gipuzkoarra, nola ezagutu zuten elkar?

Gerra ondoren Ugaldetarren etxera etorri zelako lan egitera. Bera, bere bi ahizpa eta anaia etorri ziren. Gerra garaian Urretxuko jendea Zaldibarren egon zen ezkutatuta, amaren sendiaren baserrian, eta horregatik etorri ziren gero eurak

hona. Aitak esnea eramaten zuen Ugaldetarren etxera eta hala ezagutu zuten elkar. Ama baino 15 urte zaharra goa zen. Ezkondu zirenean batak 38 urte zituen eta besteak 23.

Non egin zenituen ikasketak?

Nazionaletan hasi nintzen, sei urterekin. Nire lehen maistra Joaquina izan zen. Ondoren, Don Segundorekin eta Don Jose Antoniorekin aritu nintzen. Gutxi ikasi nuen, gehienok beldurrarekin joaten baiki-nen eskolara. Ikasketak uzteko gogoia izaten genuen. 14 urte bete nituenean aitak karrera bat egitea eskaini zidan, baina etxean niri ikasketak ordaintzeko larri ibiliko zirela ikusi nuen eta lanean hastea erabaki nuen.

Non hasi zinen lanean?

Aitak Rodriguezen lantegian niretzako lana eskatu zuen, baina ez zioten eman. Hala Eguzkia malguki eta altzairu enpresan hasi nintzen. Tornulari-mutil bezala hasi nintzen eta nire ofiziala Eitzagako Bixente Egiguren izan zen. Oso ondo portatu zen nirekin. Bestalde, lanetik irten eta gero Madayara joaten nintzen gehiago ikastera. Planoen interpretazioa eta antzerakoak ikasi nituen.

Urte asko eman al zenituen Eguzkia enpresan?

1967an Eguzkia Altsasura joan zen eta ni soldadutzara. Itzuli nintzenean, Asturiasekoa zen lankide batekin Altsasura joan nintzen Gabonetako haborokina (gratifikazioa) kobratzera. 1.500 pezeta kobratu nituen eta Altsasuko Alaska jatexera joan ginen ospatzera. Soldadutzatik bueltan sekulako gosea nuen, noski. Paella, legatza eta arkumea jan nituen, txanpan botilak lagunduta. Postrea eskatzeko ordua heldu zenean,

gose gelditu nintzela zirudiela eta zer edo zer arraroa eskatuko niola uste zuela esan zion nire lagunari. Paella gehiago eskatu nion. Ondoren, sekulako poteoa egin genuen Altsasun. Handik bueltan, kalteordaina kobratu nuen.

Non lan egin zenuen ondoren?

Anaia Mel plastiko enpresan zegoen eta niretzako tornulari lana eskatu zuen. Ekoizpenean lan egitea eskaini zidaten eta, lehenbailehen lan egin nahi nuenez, hasi egin nintzen. Handik hilabete batzuetara talde buru izatea eskaini zidaten. 50 neska nituen nire gain. Nesken aurrean pixka bat lotsatia nintzen, baina aurpegia izan behar nuela konturatu nintzen. Izan ere, batzuek nik baino hamar urte gehiago zituzten... 17 urte pasa nituen bertan eta egun nire emaztea dena han ezagutu

“Ama Athletic zale

petoa zen eta,

bere eraginez,

etxeko gainontzeko

guztiak ere bai”

nuen. Lan txarrenak berak egin behar izaten zituen. Enpresa hartan oso urte politak pasa nituen, baina erre egin zen.

Zer egin zenuen orduan?

Lantegia 1981ean erre zen eta urte eta erdiko langabezia-sorospena izan nuen, baina sekulako krisia zegoen: Rodriguez eta Madaya itxi egin ziren, besteetan langile murriztapenak zeuden... 1984an Oñatiko kiroldegan sukaldari lanetan hasi

nintzen koinatuarekin eta lagun batekin, baina ez zuen hiru lagunentzat ematen. Bestalde, Urretxuko Udalekoek Santa Barbarako taberna hartzea eskaini zidaten. Baina alaba txikia zen eta emazteak berarekin egon behar zuen, jendea kontratatuz gero akabo irabazia... Arreba Bergarako oinetako-konpontzaile batekin ezkondu zen eta ofizioa ikastea proposatu zidan. Autonomo bizimodua lasaia eta polita izan da. Nire zaletasun nagusia txirrindularitza lasterketak ikustea da eta lanbide honek horretarako aukera eman dit: anaiak proposatu didan bakoitzean Tourrera edo Vueltara joan gara egun batzuk pasatzera. Erretiratzen naizenean Giroa ikustera ere joango gara.

Nolatan zara txirrindularitza zalea?

Hemengo asko Mendijurren eskutik zale-tu ginen. Bere lasterketa guztiak ikustera joaten ginen. Gero Yurrebaso heldu zen eta bere inguruan ere zaletasun handia sortu zen. Bi hauek heldu aurretik Askasibarrek La paz de los Pirineos lasterketa irabazi zuela eta Goiko Kalen sekulako festa egin zela gogoratzen dut. Bestalde, Zumarragako Pacorro tabernan lasterketetako sailkapenak jartzen ziren arbela batean. Bahamontes eta Loroñoren artean sekulako lehia zegoen. Euskaldunok Loroñoren jarraitzaileak ginen eta espainolistak Bahamontes zaleak. Loroño gaizki zegoen urte batean Charly Gaulen alde jarri nintzen eta ordu-tik Charly deitzen didate. Nire kiroltik kutunena txirrindularitza da. Futbol kon-tuan Athletic zalea naiz, baina ez naiz futbol zale amorratua. Telebistan Athleticen partidak bakarrik ikusten ditut. Txirrindulari lasterketa guztiak ikusten ditut, ordea.



Murua eta bere emaztea, Etxe-Azpi elkarteko koadrilarekin, 2001ko Santa Anastasia egunean.

Athleticen makina bat partida ere ikusi-ko zenituen...

laz, lehenengo aldiz, final batean izan nintzen. Anaiarekin eta ilobarekin joan nintzen eta oso egun polita pasatu genuen. Bestelakoan, egun, urtean behin joaten naiz Bilbora. 8-10 lagun joaten gara. Garai batean, ordea, bi astean behin joaten ginen. Osaba tabernaren ondoan bidaia agentzia zegoen eta hamabostean behin autobusa jartzzen zuen Bilbora joateko.

Zeintzuk dira ikusi dituzun partida gogoangarrienak?

1960an edo hasi nintzen San Mamesera joaten eta Carmelok Iribarri lekukoa nola eman zion ikusi nuen. Nire ustez jokalaria onena Txetxu Rojo izan da. Clemente ere oso ona zen, baina bi urte bakarrik jokatu ahal izan zituen. Partidarik onena 1969an Real Madrilen aurka jokaturakoa izan zen. Ronnie Allen zen entrenatzailea. Valdivieso zenarekin nengoen eta leihatilari ez zen sarrerarik gelditzen. Sarrerak 50 pezeta balio zuen eta birsalmentan bost aldiz gehiago eskatzen ziguten, baina Valdiviesori sartu gabe ez nintzela

geldituko esan nion. Lehen zatian ez zen golik izan eta bigarren zatian 200 pezeta eskatzen ziguten. Sarrerak erosi genituen eta bigarren zatian Athleticcek bost gol sartu zizkion Real Madrili!

Lan kontuetara itzuliz, zuen jarduna asko aldatu al da azken urteotan?

Egun kola bikainak daude. Lehen zapatak josi egin behar ziren eta orratzarekin egin-

“Lehen zapatak josi egin behar ziren eta orratzarekin egindako zuloetatik ura sartzen zen”

dako zuloetatik ura sartzen zen. Egungo arazoa materialarena da: mendiko botetan oso material txarrak erabiltzen dituzte. Desegin egiten dira, zerrautsa bezala. Goma gutxi sartzen dute pisua arintzeko, baina plataforma oso azkar usteltzen da.



Murua, bilobarekin.


Konpondu daiteke, baina lan handia ematen du eta oso garestia da. Niri material ona erabiltzea gustatzen zait.

Bezeroak aldatu egin al dira urte hauetan guztietan?

Orain lehen baino gazte gehiago etortzen dira gurera. Neska gazteek, lehen ez bezala, takoiak erabiltzen dituzte. Gastatu egiten dira eta aldatzera etortzen dira. Neskak egunero takoidun zapatekin ibiltzea guretzat pagotxa da. Duela 40 urte zapatak igandetan bakarrik erabiltzen ziren. Astegunetan apretak eta abarkak erabiltzen ziren. Gure alabaren garaian, berriz, denek Martens botak erabiltzen zituzten eta haiek hiru urte inguru irauten zuten inongo konponketa beharrik gabe.

Zapatak ere asko aldatu dira, beraz.

Emakumezkoen zapaten kalitatea asko jaitsi da. Lehen Espainian egiten ziren: Mallorcan, Alacanten, Errioxan... Larru onarekin egindako zapatak ziren. Orain,



Anaiarekin eta ilobarekin, iazko Kopa finala hasi aurretik.

berriz, Txinan egiten dira eta plastikoa erabiltzen da. Egun, hemengo enpresek zapatak diseinatu eta euren zigilua jarri bakarrik egiten dute. Kalitaterik gabeko zapatari sekulako operazioa egin behar zaio txukun uzteko.

Ez al duzu erretiratzeko asmorik?

Jendeak hori galdetzen dit, baina emaztea oso gaztea dut. Oraindik sasoitsu nago eta jarraitu egingo dut. Pena da, baina Urretxu eta Zumarraga zapatakonpontzailerik gabe geldituko dira. Egun inguruotako zapata ia guztiak har-tzen ditugu. Gaur Azpeitiko ingeniari bat lanik gabe gelditu zela eta zapatak konpontzen hasi dela jakin dut. Beharra dagoela ikusi du. Hemengo gazteei, ordea, ez zaie iruditzen hortik bizi daitekeenik. Nire ustez apur bat mainatsua denarentzat lan polita da. 30-35 urteko bikote batentzat lan aproposa da eta bezero asko dago. Hori bai, ordu asko sartu behar dira. Oraindik hamar ordu sartzen ditut astelehenetik ostiralera.

Zure lanbideaz eta kirolaz gain, sukaldaritza ere gustatzen zaizu. Nolatan?

Anaia-arreben artean zaharrena naiz eta 12 urte nituenean ama gaixo jarri

zen. Aitak lanera joan beharra zuenez, ni hasi nintzen erosketak eta bazkaria egiten. Ama sukaldari oso ona zen eta berak irakatsi zidan. Sukaldean ez diot ezeri beldurrik.

Etxe-Azpi elkartean makina bat bazkari eta afari prestatu dituzu.

Langabezian egon nintzen garaian Pozuetak Volvo enpresakoak, adibidez, Etxe-Azpira ekartzen zituela gogoratzen dut. Txipiroiak, angulak, legatza... atzera bota zizkidatela gogoratzen dut. Haragia eta arrain gogorak gustatzen zitzaizkien.

Zein da zure berezitasuna?

Bakailaoa eta saltsak. Urretxuko jaietako

gastronomi lehiaketa bitan irabazi nuen: bata bakailaoarekin eta bestea txipiroiekin. Lehena Juan Mari Areitio Biskairekin irabazi nuen eta bigarrena Agustín Quevedorekin. Oñatin sukaldari bezala hasi nintzenean lehiaketan parte hartze-ari utzi nion. Orduetik ez dut parte hartu, baina parte hartzaileei informeak pasatu dizkiet.

Honetaz guztiaz gain, urretxuar petoza zara.

Urteko egunik ederrenak San Joan eguna eta Santa Anastasietako astelehena dira. Inauteriak ere asko gustatzen zaizkit. Lehen hemen asteartea egun handia zen eta orain larunbatean ospatzen da. Nire ustez pena da. Asteartean oso giro polita izaten zen eta gure koadrila asteartean irteten da oraindik. Festazaleak izan gara beti. Inguruko herri guztietako jaietara joaten ginen.

Beste zaletasunik ba al duzu?

Mendira joatea ere gustatzen zait. Hori bai, ez iezadazu hondartzaren eta mendia-aren artean hautatzeko eskatu. Biak gustatzen zaizkigu. Udazkenetik udaberri- ra mendira joaten gara eta udan Pirinioetara edo Benidormera.



1963ko Euskal Jaia egunean bere koadrilak karroza onenari saria irabazi zuen.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarri zure argazkiak eta nahi duzun moduan aterako ditugu: koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ALEX - BIRBOLTA

alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbira

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

HERCE
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics

URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINITZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA

Jatetxea

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. Tel. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria

Otamotz


TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO


Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

1934

Zumarragako luistarren kongregazioa

1. J. Miguel Alberdi, 2. Agapito Aizkibel, 3. Ignacio Aranzadi, 4. José González de Audikana, 5. Cándido Mendizabal, 6. Perico Arsuaga, 7. Luis Otaegi, 8. José Antonio Zabaleta, 9. Lázaro Badiola, 10. Juan Zaldúa, 11. Angel Cruz Jaka, 12. Eustaquio Arrieta, 13. José Odriozola, 14. Nicasio Gartzandia, 15. Jesús Larrañaga, 16. Juan Gartzandia, 17. Enrique Salameo, 18. Pruden Gereta, 19. ..., 20. Martín Aizkibel, 21. Txomin Madina, 22. ..., 23. Ignacio Rodríguez, 24. Hilario Badiola, 25. Txomin Bastarrika, 26. Fernando Zabalo, 27. ... Madina, 28. Agapito Marroquín, 29. Juan José Badiola, 30. ..., 31. Daniel Zabalo, 32. Vicente Berasategi, 33. Pedro Ormazabal, 34. Angel Gómez, 35. Jesús Piedad, 36. Benigno Irizar, 37. ..., 38. Jesús Alfonso, 39. Juan José Arrizabalaga, 40. Pablo Uribealago, 41. Tomás Balentziaga, 42. Jesús Larrañaga, 43. José Castillejo, 44. J. Javier Garin, 45. Paco Maté, 46. Carlos Agirrebengoa, 47. Juan Sádaba, 48. Angel Larrañaga, 49. Timoteo Alberdi, 50. ..., 51. José Larrañaga, 52. ... Alberdi, 53. Fernando Zabalo, 54. ..., 55. ..., 56. Domingo Plazaola, 57. ..., 58. Pedro Aranzadi, 59. Bautista Alberdi, 60. Tomás Arsuaga, 60 bis. Pedro Arrizabalaga, 61. José Jauregi, 62. Joaquín Ormazabal, 63. Pedro Urkiola, 64. Ramón Cortina, 65. Rodolfo Ausserladsheiter, 66. Melitón Madina, 67. José Mari Alberdi, 68. Xabin Jaka, 69. Jantxo Amundarain, 70. José María Mendiola, 71. José Gartzandia, 72. Juan José Alberdi, 73. ..., 74. Leonardo Jaka, 75. Jerónimo Legorburu, 76. Josetxo Sarasola, 77. Angel Sasianbarrena, 78. Agustín Ormazabal, 79. José Ignacio Etxeberria, 80. Juan Martín Beristain, 81. José Mari Ormazabal, 82. José Olaetxea, 83. Francisco Sarasola, 84. Angel Ormazabal, 85. José Aizpuru, 86. Teodoro Lasa, 87. Jacinto Bastarrika, 88. ..., 89. Venancio Agirrebengoa, 90. Angel Hernández, 91. José Mari Maidagán, 92. Antonio Maté, 93. Pepe López, 94. Aita Agirre, 95. On Cipriano Etxaniz, 96. On Miguel Lasa, 97. Pedro Mari Aranzadi, 98. Tomás Andueza, 99. José Gereta, 100. José Arrazola, 101. Pedro Mendizabal, 102. Iñaki Fernández, 103. Gregorio Arrizabalaga, 104. Casto Ormazabal, 105. Bernardo Irizar, 106. Bernardo Telleria, 107. José Berasategi, 108. Javier Ormazabal, 108 bis. Martín Zenekorta, 109. Gaspar Linazasoro, 110. Ramón Soraluze, 111. Paco Toledo, 112. Ignacio Irizar, 113. Joaquín González de Audikana, 114. Miguel Domínguez, 114 bis. Juanito Mendizabal, 115. José Mari Otaegi, 116. Andrés Aizkibel, 117. Ignacio Artetxe, 118. Esteban Uribealago, 119. Ignacio Arrizabalaga, 120. José Antonio Arrazola.





Herri Aldizkaria

Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa..
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.
- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

Otamotz.com: 2009ko datuak

Geroz eta irakurle gehiago ditugu. Estatistikek horrela diote, behinik behin: 2009. urtean inoiz baino Otamotz-zale gehiago izan ditugu: 74.200 bisitaldi. Eskerrik asko guztioi!

DATU OROKORRAK:

- Bisitaldiak: 74.200 (2008arekin alderatuta %10eko igoera).
- Ikusitako orrialde kopurua: 270.200.
- Bisitari bakoitzak, batz bestea, 3,64 orrialde ikusten ditu eta 2 minutu eta 50 segundu igarotzen ditu webgunean.
- Bisitari gehien izan dituen eguna maiatzaren 26a izan zen, Iñaki Beitia Mendi Martxaren nondik norakoak ikusteko.

HELTZEKO BIDEAK:

- Googletik %40.
- Zuzenean %27 (%38ko hazkundera izan du 2008ko datuekin alderatuz).
- Goierrikohitza.info %15.
- Gainerakoak (Facebook, Twitter, RSSak, beste webguneak...) %18.

GEHIEN IKUSI DIREN ALBISTEAK:

- Antolaketa aparta goizeko nahiz arratsaldeko Euskal Jaialdian.
- KKinzona* irratia aro berriari ekin dio.
- Pagoeta eta Isabeleko bidegurutzean trafikoko aldaketak izango dira.
- Eguraldia lagun Beitia martxan.
- Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak 2009: abstentzioa nagusi.

NABIGAZIO HIZKUNTZA:

Nabigatzailea euskaraz konfiguratuta



daukaten erabiltzaileen kopurua aurten ere hazi egin da. 2009an zehar, Otamotz-zaleen %30ak euskaraz zeukan konfiguratuta bere nabigatzailea, baina oraindik asko dago egiteko eta oraindik erabiltzaileen gehiengoak erdaraz dauka konfiguratuta nabigatzailea. Nabigatu euskaraz!!!

ERABILITAKO NABIGATZAILEAK ETA PLATAFORMAK:

Erabiltzaileek darabilten nabigatzaileari dagokionez, Firefoxek gorantz jarraitzen du eta Explorerrek beherantz.

- Explorer %56 (iaz %62).

- Firefox %39 (iaz %35).

- Safari %2.

- Chrome %1.

- Besteak %3.

Erabilitako plataformei dagokienez, Windows da nagusi (%92), eta ondoren, Mac (%5) eta Linux (%2).

Oharra: Artikulu honetako datuak Analytics sistemarekin lortu ditugu. Otamotz.com-en estatistika publikoak *Estatistikak* atalean aurkituko dituzu *Atari honetan* eremuan.

Xabier Goñi: behar baino lehenago joan zen pilotaria

Otsailean Xabier Goñi zumarragarraren omenezko 19. pilota txapelketa hasi da: partidak astearteetan jokatzeko dira, 18.30ean Beloki pilotalekuan, eta sarrera doan da. Urtero bezala amateur mailako jokalaririk onenak parte hartzen ari dira. Goñi bera promesa handia izan zen eta garaiko txapelketa garrantzitsuenaren (GRAVN delakoa) irabazi zuen. Oso gaztetan pasatu zen profesional mailara eta oso gazte hil zen, itsasoan itota. Aurten 20 urte beteko dira. Maisu eta lagun izan zuen Alejandro Albisuarekin hitz egin dugu berari buruz.



Alejandro Albisuak umetatik pilota oso gustuko du. Urretxu eta Zumarragako herrien onerako esku bigunak zituen: jokatzeari utzi behar izan zion eta, kirol hau maite zuenez, hurrei irakastea erabaki zuen. Zumarragako pilota eskola abian jarri zuen eta bere mutilek herriarteko txapelketa bitan irabazi zuten. Gainera, hainbat pilotari profesional mailara pasatu ziren. Tartean, Xabier Goñi zena.

Albisuak umea zela ezagutu zuen Goñi eta bere kuttunetako bat izan zen. "Pilotalekura etortzen zen jokatzera eta oso gustuko nuen. Izan ere, oso adeitsua eta umila zen. Liluratu egin ninduen eta bereziki laguntzen nion". Zumarragako pilotariak Ezkioko Idiakezekin jokatzeko zuten. "Bikote bikaina ziren. Biek aurrelari

jokatu nahi zuten, baina Goñi aurrelari petoa zen eta Idiakez atzean jarri nuen", oroitzen du.

Aipatu bezala, Goñi promesa handia izan zen. Hala, Gipuzkoa ordezkatu zuen herrialde arteko GRAVN txapelketan. "Oiartzunen entrenatzen genuen eta hautatutako gipuzkoarren artean Joxe Mari Zezeaga zegoen. Goñik Luis Agirre azkoitiarrarekin jokatu zuen txapelketa hau. Nafarrek aise irabaziko zutelako uste zuten. Hemengo partida irabazi genienean han galdu egingo genuela esan ziguten, baina itzulerakoa ez ezik, finala ere irabazi genien".

Zumarragako pilotariak eta azkoitiarrak meritu itzela izan zuten, nafarrak pilotari bikainak baitziren: atzelaria profesional mailako buruz-burukoa bitan, bina-



Xabier Goñi, mutikotan, Alejandro Albisuarekin.

kakoa hirutan eta lau eta erdikoa behin irabazi zituen Fernando Arretxe zen. Goñi ere profesionala izan zen: GRAVN txapelketa irabazi eta berehala pasatu zen gorengo mailara. “Nafarrek eta Bergarako Ugartek deitu ziguten eta bigarrenarekin fitxatu zuen. 18-19 urterekin pasatu zen profesional mailara eta hil arte jokatu zuen”, dio bere maisuak. Albisuak ez daki barruan zuen dena ematerik izan zuen. “Orduan ere enpresariak batzuek besteak baino begikoago zituzten, baina maila polita eman zuen. Partida onak jokatu zituen eta jendearen gustukoa zen. Garai hartan bigarren mailan ez zegoen binakako txapelketa-rik eta buruz buruko gutxi jokatu zituen”. Aurrelari “ikusgarria” zela dio. “Bi eskuekin ondo ematen zion pilotari eta airez

oso ondo jokatzen zuen. Erasokorra zen. Garai hartan airez egun baino askoz ere gutxiago jokatzen zela kontuan izan behar da”.

Alejandro Albisua:

“Aurrelari ikusgarria zen: bi eskuekin ondo ematen zion pilotari eta airez oso ondo jokatzen zuen”

Bere ikaslearen heriotza kolpe “gogorra” izan zen Albisuarentzat. “Donostian nengoen, medikuaren kontsultan, zori-


gaiztoko albistea hona iritsi zenean. Emazteak ez zidan ezer esan medikuarenetik irten arte. Harreman oso estua genuen eta bera nirekin bereziki adeitsu zela uste dut”.

Zumarragako pilotaria 1990eko azaroaren 11n hil zen Lanzaroten eta handik oso gutxira, abenduaren 7an, omenaldia eskaini zitzaion Urretxuko Ederrena pilotalekuan. “Ekitaldi oso polita izan zen: ikusle asko izan ziren eta profesional mailako pilotarietako parte hartu zuten”, amaitu du.

Gotzon Aranburu kazetari zumarragarrik Egin egunkarian idatzitako kronikaren arabera, Ederrena bete egin zen. Pilotalekuaren atzealdean harmaila gehigarriak jarri ziren eta ETBko kamerak ere bertan izan ziren.

Hiru partida jokatu ziren. Lehena kadete mailakoa izan zen. Segurako Berasategik eta Imazek 18 eta 11 irabazi zieten Zumarragako Erostarberi eta Urretabizkaia II.ari. Bigarren partida amateur mailakoa izan zen eta Urretxu eta Zumarragako lau pilotari aritu ziren nor baino nor: Unai Urretabizkaia eta Javier de Luzek 18 eta 16 irabazi zieten David Urzelairi eta egun Zumarragako alkate den Mikel Serranori.

Omenaldiko une nagusia hirugarren partida hasi aurretik izan zen. Iñaki Muruak eta Anjel Mari Peñagarikanok bertsoak abestu zituzten Goñi zena oroitzeko eta ondoren senitartekoek hainbat opari jaso zituzten. Azkenik, profesionalen arteko pilota partida jokatu zen. Salva Bergarak eta Inaxio Errandoneak 22 eta 18 irabazi zieten Martin Alustiza eta Joxe Mari Etxenagusari.



Alex Areizaga

Informatika

'Cobian Backup'

Informatika Murphy-ren legeari oso lotua dago: egunen batean zure ordenagailua izorratzen bada ziur bermea amaitu eta hurrengo egunean izango dela. Orduan, zure argazkiak, artxibo garrantzitsuak, ordezkazinezko postak eta abar galduko dituzu: fitxategi horien segurtasun kopiarik egin ez baduzu behintzat. Hori egiteko *Cobian Backup Amanita* doako programa aurki dezakegu sarean. Honekin nahi dituzun fitxategien kopiak egin ahalko dituzu, baina badago automatikoki lan egiteko programatzea ere. Nahi dituzun karpetak hautatu, kopien maiztasuna programatu, zifratuta edo konprimituta egotea nahi al duzun aukeratu eta gordeko diren euskarria ere zehaztu ahal izango dituzu (Pendrive, CD, disko gogorra,...). Kopia inkrementalak egiten ere uzten du. Hau da, aldatu dituzun datuak soilik berrituko ditu nahi izanez gero. Hala bikoiztutako informazioa ekidindago da eta beti ere kopia berritu eta osatua mantenduko da. Oraingoz *Windows*-erako soilik dago. Saretik jaitsi daitezke, bai programa eta baita hau erabiltzeko manuala ere. Mila esker osaba!



Izaro Soraluze

Osasuna

Homeopatia

Homeopatiak medikuntza tradizionalaren kontrako printzipioak erabiltzen ditu. Medikuntza tradizionalan gaixotasunaren aurkako sendagaia ematen den bitartean, homeopatian gaixotasunaren antzeko sendagaia ematen da. Bolatxo moduko pilulak erabiltzen dira gehien. Hauek egiteko produktu naturalak erabiltzen dira. Osagai aktiboa hainbat aldiz urtzen da oso kontzentrazio txiki baina eraginkortara iritsi arte. Medikuntza tradizionala baina mantsoagoa da, gaixotasun kronikoak polikiago sendatzen ditu. Adin eta era guztietako jendearentzat egokia izan arren, batzuei besteei baina eragin handiagoa egiten die. Adibidez haurrei. Oso zabala da eta ia era guztietako gaixotasunak sendatu ditzake. Pertsona bakoitzaren sintomak aztertzen ditu eta gaixotasun bera duten pertsonen askotan ez die sendagai bera ematen, gaixo bakoitza ezberdina baita. Ikerketa zientifiko ezak zalantzan jartzen du homeopatia. Hala ere, milaka paziente daude hobera egin dutela diotenak eta baita sendatu direnak. Hori dela eta, erabiltzaile kopurua etengabe hazten ari da.

Tira

Garoarte parkea dioen seinaleari Motxek, Lindak, Miluk eta Neronek, denek egin zioten pixa txakur paseatzaile hark zaindu izan zituen tartean. Goizero ekartzen zituen *Garoartera*. Euri, elur, sargori nahiz hozkirri. Astelehen, asteazken, ostiral, ostegun eta astearte. Ordu berean. Hegoaldeko sarreratik sartzen ziren. Iparraldekotik irten. Ibilbide osoan zehar, txakur gaixoek belarriak tente entzuten zioten gazteari, zoroiei entzuten zaien gisan, kateaz lotuta dauden txakur batzuek entzun dezaketen etsipen osoarekin.

Normalean gelditu gabe egiten zuten paseoa parkean zehar. Beti aurrera. Presarik izan gabe, baina gelditzeko bel-durrez. Txakurrek jarri ohi zuten erritmoa. Linda ipurtaldea kulunkatzen hasi bezain pronto, dantzan hasten ziren Milu, Motx eta Neronen buztanak. Berotuta. Jolaserako gogoazuten animaliek eta paseoa arina izan zen.

Txakur paseatzaileak irribarre gaiztoa zeraman: “Nolako presa duten piztia koittaduek hiltzeko”. Kanpotik ikusita, pentsa zitekeen, lehoi domadoreztat zuela bere burua. Ezin jakin ordea, agintea ala izua zuen lau kateetan lotuta. Badaezpada ere, hogeita hamaika eskutik ez izateagatik-edo, kate motzean zeramatzan lau zakurrak. Hala zirudien behintzat.

Txakur gajoei parkera iritsi arte, berdin izaten zitzairen elkarren kateak erabat korapilatuta izatea. Baina belarra zapaltzen zutenean, batak besteagandik askatu nahi izaten zuten; nahiz eta txakur paseatzaileari lotuta egotea onartu. Zirenak eta bi egiten zituzten ahalik eta kate luzeena izateko. Milu zen horrelako zereginetan trebeena. “Betiko askatasunera eraman behar zaituztet, arimaga-beok. Zaudete lasai!”. Ez zitzaion mendekuaren irribarrea aurpegitik kentzen txakur paseatzaileari. Gorrotoak itsutzen badu,itsu-txakurrak izan zitezkeen laurak.

Garoarteren hegoaldetik iparralderako bidean zegoen laugarren bankua ikusi zuen behintzat, eta mendekuak nekatuta bertan eseri zen. Erromatarrak koadrigetan bezala zeuden. Bankuan eserita zegoen txakur pasea-

tzailearen oinetan lau piztiak, katakumeak baliran. Nahita ala nahi gabe, “Kristina x Kepa” zioen izkribu nerabea estali zuen bizkarra eserlekuaren kontra jartzean.

Ezkerreko eskuarekin lau kateak eusten zituela, eskuinekoarekin pozoitutako laztan bana egin zien Milu, Neron, Motx eta Lindari. Bakoitzari gehien gustatzen zitzaion lekuan. Miluri kokotean, Lindari paparrean, Neroni hegalean eta Motxi kopetan. Judasen musua gizonaren lagun onenei. Eskuak beste zerbaiterako behar zituen eta lasai-lasai, bakean, utzi zituen lau piztiak. Otzan eserita. Inozo.

Berak ere, askatu eta lasai, zoruan utzi zuen lau txakurren kateak biltzen zituen uztaila. Ezker oinarekin zapaldu zuen. Ez ziren urrutira joango, baina badaezpada, hobeto zeuden hankapean.

Ezkerreko poltsikotik koloretako pilota bat atera zuen. Aldaka ikaragarri zabaltzen zion. Lurrean utzi zuen. Eskuineko oinaren ondoan. Odol hotza behar da gero! Eskuineko patrikatik, berriz, bi soka luze eta bi laburtxoago atera zituen. Bi luzeei heldu zien aurrena. Luze jarri zituen biak altzoan, bankuaren luzera osoan eta bankuaren ertzetatik zintzilik. Hankekiko perpendikular eta soka biak elkarri paralelo. Baziren bost metro luze. “Soka luzeak bide laburrerako”.

Eskuineko bi muturrak parean zeudela ziurtatu zuen. Ezkerrekoetan jarri zuen arreta: berdin-berdinak ziren. Biak erditik hartu zituen, tolestu, bi sokarekin lau egin nahi izan zituen, eta korapiloa egin zuen, erdi-erdian.

Amaia Artolazabal Amilleta

www.otamotz.com/index.php Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Jorge Andueza 'Pitu'

Jorge Andueza urretxuarrak La Salle-Legazpi ikastetxean egin zituen oinarrizko ikasketak. Ondoren, REM ikasi zuen eta Donostiara joan zen Harreman Publikoak ikastera. Gizarte Hezkuntzan diplomatu ere bada eta egun Haur Hezkuntzako irakaslea izateko ikasten ari da. 'Pitu' aski ezaguna da herrian. Izan ere, futboleant eta areto futboleant aritu zen eta urte luzeant aitaren edari banaketa enpresan lan egin zuen. Gainera, bertso eskolako kidea da. Urtero bezala, Martxoan Bertsoa ekimeneko txapelketan parte hartuko du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolaria, medikua...

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Bertso saioetara joatea, kirola egitea, ingurukoei adarra joztea... Orain, ikasketak direla eta, musikara zaletzen ari naiz.

Bizitzeko toki bat?

Urretxuko Mundo Mejor auzoa. Bertan jaio nintzen eta egun etxe hartan bizi gara.

Gustuko bertsolaria?

Maialen Lujanbio. Finalean izan nintzen eta bere garaipenak asko poztu ninduen.

Gustuko herriko bertsolaria?

Gorka Azkarate bertsolari ona delako eta Ander Gabirondo *Kaxero* ahalegin handia egiten duelako. Ahalegina egiten duen jende asko dago eta horiek ematen diote izaera eskolari.

Athletic taldeko jokalaria bat?

Lehengoen artean Dani eta oraingoan artean Yeste.

Reala ala Real Madril?

Reala.

Realeko zein fitxatuko zenuke?

Aranburu. Agirretxe ere bai. Eta Prieto.

Zergatik zara Athletic zalea?

Osabaren eraginez. Umetan, Satrustegik Iribarri gola sartu zionean negar egin nuela gogoratzen dut.

Ilehortiak ala beltzaranak?

Denak.

Egindako azken operia?



Erloju bat Ainarari.

Eta jasotakoa?

Ainarak oparitutako txirula.

Data bat?

Sanjoanak eta Santaixabelak. Biak asko gustatzen zaizkit.

Mutil eta neska izen bana?

Iñaki eta Itsaso (gure alabarena).

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Berría eta parean tokatzen diren gainontzekoak.

Gustuko telebista saioa?

El conquistador eta *Hitzetik hortzera*. Asteburuetan, gaueko txutxumutxu saioak ere ikusten ditut aspertu arte.

Bereziki gorroto duzuna?

Ez dut saio bat bera ere bereziki gorroto.

Liburu bat?

Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia. Autismoari buruzkoa da.

Pelikula bat?

Tomates verdes fritos.

Soinu bat?

Orain, txirularena.

Usain bat?

Usaimen oso txarra dut.

Janari bat?

Arrautza frijituak patatekin.


Ura ala...

Sagardoa.



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**




KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com



IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA